

Oinarriak. IKASTETXE ETA IKASTOLETAN DIGITALIZATZEKO “ESKOLA DIGITALA” PROGRAMA.

2021. urte honetan, eta osasun-egoerak sortzen dizkigun erronkak ikusita, inoiz baino gehiago lagundu behar diogu gizarteari bere helburuak lortzen eta aurrera egiten.

Rural Kutxa, lurraldean errotutako erakunde kooperatiboa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatu itunduen digitalizazioari laguntzeko lerro hau jarri du abian. Erakundeak urtero hezkuntza eta prestakuntza ekintzetarako, besteak beste, bideratzen dituen gizarte-ekintzako funtsen barruan dago lerroa.

Rural Kutxak, hezkuntza-sektorearen eta haren garapenaren aldeko apustua sendotzeko xedez, **“Eskola Digitala” digitalizazio-lerroa, 300.000 eurokoa, jarri du** Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe itundu guztien eskura (ikusi <https://www.cajaruraldenavarra.com/eu/landings/eskoladigitala>)

, ikastetxe horietan hobekuntza teknologikoetarako inbertsioa sustatzeko

“Eskola Digitala” lerroaren bidez, gure lurraldeko ikastetxeei babesa eta laguntza eman nahi dizkiegu, hezkuntza etengabe hobetzeko etorkizunerako bidean. Gure banku-ereduak gizarteari balioa ematen jarraitu behar du, gizarte bidezkoagoa, etengabeko aurrerapenean, eraikitzeke aukera emanaz. Kutxaren balioek eta lan egiten duen gizartearekiko konpromisoak ahalegin hori eskatzen diote, eta erantzuna eman beharra dago ingurune oparago batean eta hobeto prestatutako giza kapital batekin hazten lagunduko diguten ekintzak konbinatzeko, ikaskuntza egoki eta modernoa lagun.

Testuinguru horretan, ikastetxeetako digitalizazioak jasangarritasuna, eraginkortasuna eta berrikuntza bultzatzeko bidea izan behar du. Azken batean, haurren, irakasleen eta familien garapenerako laguntza.

Gizarte aurreratuago eta teknologikoki konektatuago baten egungo testuinguru honetan, berehalakotasuna nagusi dela askotan, EAEko ikastetxeak ez dira errealitate horretatik at geratzen.

Helburu hauek ditu ekimen honek:

- Ikastetxeei teknologia berrietarako sarbidea erraztea.
- Eraberritzea eta hezkuntzarako tresna berriak aztertzea.
- Zaurgarritasun-arriskuan dauden familien eten digitala hobetzea.
- Irakasleen errendimendua eta eraginkortasuna handitzea, ikasgelan esperientzia hobea izateko.
- Ikasleengan hezkuntza-edukiekiko interesa piztea.

1. artikulua.- Betekizunak eta eskabideen aurkezpena

Digitalizazio-lerroan parte hartzeko, betekizun hauek bete beharko dira:

- Helbidea EAEn eta 2020-2021 ikasturterako itunduta dauden ikastetxe guztiak aurkeztu ahal izango dira, Hezkuntza sailburuaren 2020ko irailaren 16ko Aginduaren arabera, baldin eta 3 urtetik gorako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ematen badute.
- Ikastetxe eskatzaileek <https://www.cajaruraldenavarra.com/eu/landings/eskoladigitala> helbidean aurkituko duten formularioa bete beharko dute. Legezko ordezkaritza nahikoa duenak, edo horretarako ahalmen nahikoa duenak, bete beharko du eskabidea. Inprimakia behar bezala bete eta lehen aipatutako web orriaren bidez bidaliko da.
- Eskabide bakarra aurkeztu ahalko da ikastetxe bakoitzeko, 2021. urtean zehar egin beharreko inbertsio digitalak adierazita. Hezkuntza-egoitza bat baino gehiago duten ikastetxeek eskaera bakarrean bildu beharko dituzte egindako inbertsioak. Hartara, IFK bereko eskaera bakar bat onartuko da

Gainera, lerroa atxiki nahi duten entitateek jarraian zerrendatzen diren baldintza batzuk bete beharko dituzte. Rural Kutxak haien gaineko ziurtagiriak eskatzen ahalko ditu noiznahi, aurkeztutako proiektuak aztertu bitartean:

- EAeko ikastetxea izatea, aipatutako ebazpenaren arabera: <https://www.cajaruraldenavarra.com/eu/landings/eskoladigitala>.
- Rural Kutxan banku-kontu bat izatea. Baldintza hori dirulaguntza jaso aurretik egiaztatu beharko da.
- Faktura, proformako faktura edo aurrekontua aurkeztea, 2021eko ekitaldian inbertsio teknologikoa egiteari begira.
- Inbertsio horrekin lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako hobekuntzak azaltzen dituen memoria laburra.
- Inbertsioak 2021ean gauzatu beharko dira, eta ordainketa 2021-11-30a baino lehen egin dela egiaztatu beharko da.
- Zerga-betebeharrak (Foru Ogasuna edo AEAT) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

2. artikulua.- Hauta daitezkeen inbertsioen tipologia.

EAEko ikastetxe itunduek 2020-2021 ikasturterako egindako inbertsioak, oro har hartuta, hautatu ahalko dira; helburua ikastetxeei berritzeko eta hezkuntzaren abangoardian jarraitzeko gaitasuna ahalbidetzea da. Honako inbertsio-mota hauek hauta daitezke:

- Aldaketaren teknologiak: adimen artifiziala, errealitate areagotua, errealitate hedatua (hologramak), 3D bisualizazioa, gamifikazioa.
- Hezkuntza hobetzeko software-inbertsioak.
- Ikastetxerako hardware-inbertsioak.
- Inbertsioak sareetan, WI FI instalazioetan, 5G-n.
- Ikasgelan laguntzeko ikus-entzunezko arloko inbertsioak.
- Inbertsioak prototipotan edo simulagailutan.
- Zibersegurtasun arloko inbertsioak.

3. artikulua.- Eskaerak aurkezteko epeak:

Eskaerak aurkezteko epea.

- Hasiera eguna: 2021eko maiatzaren 15a (barne)
- Amaiera-eguna: 2021eko ekainaren 30a (barne)
- Behin-behineko onespenerak argitaratu eta jakinarazteko eguna: 2021eko uztailaren 16a; mezu elektronikoa bat bidaliko zaie eskatzaile onuradun guztiei, eta honetan ere argitaratuko dira: <https://www.cajaruraldenavarra.com/eu/landings/eskoladigitala>

Behin-behineko onespenera argitaratu ondoren, esleipendunek Rural Kutxak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte, eta behar den dokumentazio gehigarria aurkeztu. Dokumentazio hori Rural Kutxak eskatuko du, ikastetxeak eskabidean zehaztutako posta elektronikoa bidez.

Dokumentazioa aurkeztu eta egindako inbertsioen ordainketa egiaztatu ondoren, esleitutako zenbatekoak ordainduko ditu Rural Kutxak, zure ikastetxeari dirulaguntza esleituz gero. 2021eko azaroaren 30a baino lehen egiaztatu beharko da.

4. artikulua.- Lerroaren ezaugarriak:

Esan bezala, Rural Kutxak dirulaguntza emanen du ikastetxeek 2021. urtean egiten dituzten inbertsioetarako. Eskola Digitala lerroa inbertsio horiei zuzenean laguntzeko da.

Rural Kutxak inbertsioaren zenbateko osoaren % 10 (BEZa barne) lagunduko du diruz, gehienez ere 3.000 euro eskaera bakoitzeko.

Gainera, Rural Kutxak finantzazio-lerro berezi bat jarriko du ikastetxeen eskura; helburua da inbertsio bat egin nahi duen edozein ikastetxek egin ahal izatea, horretarako behar diren funtsak eduki ala ez une horretan. Lerro horren baldintzak 7. artikuluan zehazten dira.

5. artikulua.- Ebaluazio-irizpideak

- Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, Rural Kutxak haiek ebaluatu, eta oinarri hauetako baldintzak betetzen ez dituztenak baztertuko ditu.
- Jasotako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko balorazio-batzordea Rural Kutxako profesionalek osatuko dute. Litekeena da, dena den, profesionalak edo arlo digitalean ospe handiko pertsonak ere sartzea batzordean, edo haiei zerbait kontsultatzea.
- Deialdiaren ebazpena www.ruralvia.com/Instituciones/eskoladigitala web-orrian argitaratuko da, onespenez argitaratu eta jakinarazi eta hurrengo hilabetean zehar. Nolanahi ere, ezin izango da errekurtsioa aurkeztu.
- Rural Kutxaren asmoa da ikastetxe bakar bat ere ez gelditzea dirulaguntzen lerroa sartu gabe. Beraz, baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiek dirulaguntza jasotzeko eskubidea izanen dute. Hori dela eta, eskaera onargarrien kopuru osoak lerroaren gehieneko zuzkidura gainditzen badu, eskatzaile bakoitzak jaso beharreko behin betiko zenbatekoa onuradun guztien artean hainbanatuko da, modu linealean, irizpide honen arabera:

**hauen ondoriozko %a: Lerroaren zenbatekoa guztira / Onetsitako dirulaguntzen batura guztira
% hori ikastetxe bakoitzerako onetsitako dirulaguntzari aplikatuko zaio.**

Adibidez: $300.000 / 400.000 = 0,75$

Onetsitako dirulaguntza: $3.000 \text{ euro} \times 0,75 = 2.250 \text{ euro}$

6. artikulua.- Lege-informazioa eta parte-hartzea

- Ikastetxeak eskaera aurkezteak deialdi honetako klausulak baldintzarik gabe onartzea dakar:
- Rural Kutxak zuzkidura handitzeko eskubidea du.
- Oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein gorabehera Rural Kutxak ebatziko du.
- Oinarri hauetako edozein puntu betetzen ez bada, proiektua hautapen-prozesutik kanpo geldituko da. Ikastetxe batek punturen bat betetzen ez badu dirulaguntzaren zenbatekoa jaso ondoren, jasotako dirua itzuli beharko du, Rural Kutxak alde zuzetik eskatuta.
- Rural Kutxaren erabakia apelaezina izanen da.
- Inprimakia betetzen duen pertsonak konpromisoa hartzen du formularioan sartutako datuak zuzenak izateko; halaber, haien egiazkotasunaren erantzule izango da, eta erantzule bakarra izango da informazio hori faltsua izateagatik sor daitezkeen auzietan.
- Entitate onuradunek konpromisoa hartzen dute jasotako laguntzaren berri emateko ikastetxeko hezkuntza-komunitateari (familiak, ikasleak eta irakasleak); Rural Kutxa sartuko dute ikastetxeko webgunean, eta haren aipamena egin sare sozialetan (ikastetxeak halakorik badu) #eskoladigitala hashtagarekin.

7. artikulua.- “ESKOLA DIGITALA” FINANTZAZIO-LERRO BEREZIA

Rural Kutxak inbertsioa finantzatzeko aukera emanen die halakorik egitea beharrezkotzat jotzen dituen ikastetxeei. Rural Kutxak finantzazio-lerro berezi bat diseinatu du finantza-baldintza onuragarrietan, ezin ikastetxe geldi ez dadin inbertsiorik egin gabe likidezia-arrazoia direla eta.

Finantzazioa kontratatu nahi duten ikastetxeek eskabidean adierazi beharko dute, bertan jasotakoari jarraiki. Ondoren, Rural Kutxa ikastetxearekin harremanetan jarriko da, eskaera aztertzeko behar den gutzia koordinatzeko. Finantzazioaren baldintzak hauek izanen dira:

- a. Finantzazioa mailegu baten bidez egingo da, irekiera-komisiorik gabe, eta ITN % 1 izango da. 5 urte iraungo du, gehienez. UTB: % 1,005
**** Adibidea** 15.000 euroko mailegu baterako, 5 urtera Irekiera-komisioa: 0 euro. Hileko kuota: 256,41 euro. Ordaindutako interesak guztira 384,37 euro da, eta zor osoa, 15.384,37 euro. Amortizazio-sistema frantsesa. Kredituaren kostu osoa: 384,37 euro.
- b. Finantzazioa emateko, beharrezkoa izanen da Rural Kutxako bazkide izatea. Xehetasun gehiago, hemen:
https://www.cajaruraldenavarra.com/sites/default/files/Documento_Informativo_Aportaciones_a_Capital_Social_Caja_Rural_de_Navarra_0.pdf

** Finantzazio hori Rural Kutxako organo eskudunaren behin betiko onespeneraren mende egonen da, eta hura emateko behar diren agiri guztiak berrikusi beharko dira onetsi baino lehen.

8. artikulua- Datuen babesa.

- **Arduraduna:** CAJA RURAL DE NAVARRA S. COOP. (aurrerantzean, arduraduna), helbidea: Foruen plaza 1, Iruña (Nafarroa), IFZ. F31021611 zenbakia, Espainiako Bankuan 3008 zenbakiarekin erregistratua, Telefonoa (34) 948 168 100 eta posta elektronikoaren helbidea buzon.crnavarra@cajarural.com. Bestalde, datu-babeserako ordezkariarekin harremanetan jar daiteke helbide elektroniko honetan: protectciondatos.crnavarra@cajarural.com
- **Helburua:** Arduradunak helburu hauekin tratatuko ditu emandako datu pertsonalak :
- Ikastetxeetako ordezkari gisa aritzen diren pertsona fisikoen **datu pertsonalak** arduradunak tratatuko ditu digitalizaziorako laguntza eskatzen duen ikastetxearekin harremanetan jartzeko. Halaber, zuk ordezkatzun duzun ikastetxea esleipendun suertatzen bada, zuekin harremanetan jarri eta ekipoen entrega kudeatzeko.
- **Zure ikastetxea** hautatzen bada, zure datu pertsonalak erabiliko ditugu, betiere zuk espresuki baimena ematen baduzu, zure irudia barne, hautatutako ikastetxeen identitatea jakinarazteko; albistea gure webgunean argitaratuko dugu horretarako.
- **Legitimazioa:** Tratamenduaren helburuaren arabera, oinarri juridikoa desberdina izan daiteke:
 - Laguntzaren kudeaketarekin lotutako helburuak: legitimazioaren oinarria entitateak zuk ordezkatzun duzun ikastetxearekin harremanenarekin jarraitzeko edo haren eskaerari erantzuteko duen interes legitimoa da.
 - Hautatutako ikastetxeetako ordezkarien irudia argitaratzeko helburu duen xedeari dagokionez, haien adostasuna da legitimazioaren oinarria.
- **Komunikazioak eta/edo eskualdatzeak:** ez zaizkie datuak hirugarrenei lagako, legezko betebeharra izan ezik. Hala ere, baldin eta zuk onartzen baduzu, zure irudiari buruzko datuak gure webgunean (<https://www.cajaruraldenavarra.com/es>) argitaratu ahal izango dira.
- **Gordetzeko epea:** Zure datuak zozketa indarrean dagoen bitartean tratatuko ditugu, eta, zozketa amaitu ondoren, tratamendurako legitimatuta gauden bitartean edo arduradunarentzat legezko erantzukizuna dagoen bitartean.
- **Eskubideak eta haiek gauzatzea:**

- Eskuratzeko eskubidea: Eskubidea duzu jakiteko zer datu-mota tratatzen ditugun eta nolako tratamenduak egiten ditugun, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (aurrerantzean, DBEO) 15. artikuluan xedatutakoarekin bat.
- Zuzentzeko eskubidea: Eskubidea duzu zure datu pertsonalak aldatzea eskatzeko, horiek ez badira zehatzak edo egiazkoak, edo ez badaude eguneratuta.
- Aurka egiteko eskubidea: Eskubidea duzu zure datu pertsonalak helburu jakin batzuetarako ez erabiltzea eskatzeko. Hori horrela, tratamendua zure baimenean oinarrituta badago, edozein unetan baimen hori ukatzeko eskubidea duzu. Halaber, zure datuen tratamenduaren aurka egin ahal izango duzu. Hori guztia DBEOren 21. artikuluekin bat.
- Ezeztatze edo ezabatze eskubidea: Eskubidea duzu zure datu pertsonalak ezabatzea eskatzeko, jada tratamendua ez denean beharrezkoa.
- Tratamendua mugatzeko eskubidea: Zure datuen tratamendua mugatzea eskatu ahal izango duzu; hala eginez gero, erreklamazioak gauzatzeko edo haietatik defendatzeko edo errekerimendu judizialei edo legezko eskakizunei erantzuteko bakarrik gordeko dira.
- Eramangarritasuna. Eskubidea duzu guri emandako datuen eramangarritasuna eskatzeko (erabilera arrunteko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratuan jasoko dituzu), eta beste erantzule bati igorriak izatekoa, DBEOren 20. artikuluari jarraikiz.
- Baimena ezeztatzea. Edozein unetan ezeztatu dezakezu aurrez emandako baimena, inolako kalterik gabe.
- Erreklamazio bat aurkeztea. Eskubidea duzu edonolako erreklamazioak aurkezteko kontrol-agintaritza eskudunaren aurrean. Espainian, Datuen Babeserako Espainiako Agentzia jotzen da erakunde eskuduntzat, kasu batzuetan erkidegoetako edo nazioz gaindiko beste erakunde batzuek izan ditzaketen eskumenen kaltetan izan gabe, Datuak Babesteko Erregelamenduaren eta nazioko araudiaren arabera.

Datuen babesaren gure ordezkariengana ere jo dezakezu, helbide elektronikoa honen bidez: protecciondedatos@crnavarra.com. Jasotako eskubideetako edozein baliatzeko, igorri idazki bat Rural Kutxara, helbide honetara: Foruen plaza 1, 31003 PK, Iruñea; edo, bestela, helbide elektronikoa honetara: protecciondedatos@crnavarra.com. Zure NANaren kopia edo identifikatzeko beste agiri ofizial batena atxiki beharko duzu. Oinarri hauek Rural Kutxaren webgunean argitaratu dira..